

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NOGeko Idoya Zazpe neurokirurgialariak Amerikako Neurokirurgiako Elkartearen nazioarteko saria lortu du

Sariaren bidez, emakumeek espezialitate horretan egiten duen lana saritu da

Ostirala, 2018.eko azaroak 2

Idoya Zazpe doktoreak, NOGeko Neurokirurgia Zerbitzuko buruak, Greg Wilkins-Barrick Chair Visiting International Surgeon Award saria jaso du Amerikako Neurokirurgiako Elkartearen (CNS) urteko biltzarrean zehar, duela gutxi, Houstonen. Saria urtero ematen dio Amerikako Neurokirurgiako Elkarteko atal femenoak nazioartean ospea duen neurokirurgialariari, emakumeek espezialitate horretan egiten duten lana saritzeagatik; horretarako, epaimahaiak kontuan izaten du hautagaien curriculuma eta ibilbide profesionala eta pertsonala.

Idoya Zazpe (Iruña, 1974) neurokirurgialariak Medikuntza-ikasketak egin zituen 1992 eta 1998 urte artean, eta garuneko tumoreen genetikari buruzko doktorego-tesia 2004an defendatu zuen Nafarroako Unibertsitatean. Neurokirurgiako egoitza NOGen egin zuen (1999-2004), eta, geroztik, bertan egiten du lan mediku ondoko eta egoiliarren tutore gisa, eta 2016az geroztik zerbitziburua ere bada. Nazioarteko erreferentziako zentro ezberdinetan trebatu da; hala nola, Parisko Lariboisiere ospitalea, Pittsburgh-eko Unibertsitateko Mediko Zentroa (UMPC) eta Miami Jackson Memorial Hospital.

Zazpe Neurokirurgiako Sozietateen Europako Elkarteko (EANS) eta Neurokirurgiako Espainiako Sozietateko (SENEC) kidea da, eta azken horretan Neuroonkologiako eta Neurokirurgia pediatrikoko lan-taldeetan hartzen du parte, eta Neurokirurgiako Espainiako Aldizkariko koeditorea ere bada.

Horrez gain, Zazpe doktoreak garuneko tumoreen kirurgiarako eta



Zazpe Amerikako Neurokirurgiako Elkartearen urteko biltzarrean.

kirurgia endoskopiko eta zauri txikiko kirurgiarako lehenetsuneko dedikazioa du; hau da, garezurreko gune konplexuetara modu seguruan iristeko aukera ematen duena, larruazalean ebaki txikiagoak eginda eta ospitaleratuta denbora gutxiagoan egonda.

Galería de fotos



Idoya Zazpe doktorea, NOGeko Neurokirurgia Zerbitzuko burua.